

**IRAKASLEAK EZ DIREN LANGILEEN LANSARIAK 2017RAKO:
INTERPRETAZIO BATZORDEAK TAULAK ETA ATZERAPENAK ARGITU DITU**

Albiste pozgarriak sektoreko irakasleak ez diren langileentzat, bere egoera prekarioa konpontzen ez bada ere. Joan den azaroaren 27an bildu zen Donostian Hitzarmena Interpretatzeko Batzorde Mistoa Administrazio eta Zerbitzuko langileen nahiz Hezkuntza Laguntzako Espezialisten lansarien inguruko bi gai jorratzeko:

Irakasleak ez diren langileen 2017ko igoera

Langile publikoek aurten izan duten %1 igoerak eragina izan du Administrazio eta Zerbitzuko langileen nahiz Hezkuntza Laguntzako Espezialisten lansarietan, bere taulak % 95ean egon behar direlako ekipaturik. Hori dela eta, taula berriak adostu dira %1eko igoerarekin eta abendutik nominak taula berrietara egokitu beharko dira. Atzerapenak (urtarrilaren 1etik ordaintzen den arte) abenduaren 31a baino lehen eskuratu behar dira. Atxikituta taula berriak zuen ikastetxean zabaldu ditzazuen.

Kolektibo hauetako langile guztiek dute eskubidea bere nomina abenduan gaurkotzeko eta atzerapen horiek kobratzeko, baita ordezkapenak egin dituztenak ere. Ez badiete zuzenean ordaintzen erreklamatu behar dute.

Honek ez du zerikusirik lansarien murrizketen ondorioz kobratu gabe egon daitekeen beste edozein kantitateekin. Kantitate horiek Batzorde Paritarioaren bidez bideratu behar dira. Irakasleak ez diren langileei ordaindu behar zaien diru kantitatea ebazpen judizial baten ondorioz sortutako zor berria da, aurtengoa.

Irakaskuntza espezializatueta Irakasle ez direnen %95ko ekiparazioa hurrengo baterako utzi da.

Administrazio eta Zerbitzuko langileen 2012ko gabonetako lansariaren atzerapenak

Bakarrik Administrazio eta Zerbitzuko kolektiboari eragiten dio puntu honek. Aurten langile publikoek bere unean kendu zioten 2012ko gabonetako lansariaren laurdena kobratu dute. Orduan, bere garaian kobratu ez ziren kantitate horiek atzerapen moduan kobratu behar dira 2017ko urtea amaitu baino lehen. Atxikituta doaz atzerapenen taula.

Irakaskuntzan STEILASwww.steilas.eus